



COVID-19 krisiaren ondorioei aurre egiteko proposamena

ehbildu
Tolosa

Pairatzen ari garen pandemia honek osasun egoeran ondorio latzak sortzeaz gain, arlo sozial zein ekonomikoan ere kalte handiak eragin ditu eta are okerragoak ekarriko dituela dirudi.

Tolosako EH Bilduko Udal taldeak honako eztabaidarako dokumentu hau partekatu nahi du, krisi honetatik ahalik eta ondoen irteteko denon elkarlana ezinbestekoa dela sinetsita.

ehbildu
Tolosa

Helburuak

- Birusaren hedatzea kontrolatzea eta deskonfinamendu segurua bermatzea.
- Krisiaren ondorio sozioekonomikoei erantzun egokia ematea:
 - Egoera zaurgarrienean gelditu diren herritarrei oinarrizko laguntzak bermatzea.
 - Tokiko ekonomiaren sektore ezberdinei babesa eta laguntza ematea.
- Krisiaren beste alderdiak kontuan hartzea eta erantzun egokia ematea:
 - Indarkeria matxistaren gorakada.
 - Arazo psikologikoen gorakada.
 - Kultur ekitaldien eta festen berrazterketa.
 - Kultur eragileen egoera.
 - Etab.

Egoeraren azterketa

1. Diagnostia

Herrian dugun errealitatearen diagnostikoa egitea. Eragile (sozialak, kulturalak, ekonomikoak,...) eta herritarrak entzun eta beraiekin gure diagnostikoa partekatzea.

- **Deskonfinamendua.**
 - Deskonfinamendurako [EH Bilduren planean](#) oinarritua. Udaletan modu ordenatuan eta seguruan egiteko gomendioak.
- **Sozioekonomia.**
 - Egoeraren diagnostia egin.
 - Gizarte zerbitzuak:
 - Baliabide ekonomikorik gabe dauden familien detekzioa.
 - Indarkeria matxistaren (Berdintasun Sailarekin batera) arriskupean dauden emakumeen detekzioa.
 - Tokiko ekonomia:
 - Ostalari, komertzio, enpresa txikiak (gremioak, ileapaindegiak, kontsulta ezberdinak, sortzaileak...), autonomoen egoera. Noraino eten behar izan du bakoitzak bere jarduera eta zein dira bakoitzaren aurreikuspenak?
 - Zein dira aztertu ditugun eragile sozioekonomiko hauek eskuratu ditzaketen beste erakundetako laguntzak?
- **Kultura eta kirola.**
 - Eragile ezberdinen egoera ezagutu eta datozen hilabetetarako aurreikuspen zuhurra egin. Nola has daitezke bere jarduera berreskuratzen segurtasunez?
 - Festen ospakizunen gaineko hausnarketa egin eta proposamen ezberdinak aztertu. Herriko sortzaileak festetan parte hartzeko bideak aztertu.

2. Udalaren baliabide ekonomikoen berrazterketa

Udaletan COVID19aren krisia eta beren ondorioak kudeatzerako garaian, lehentasun nagusia ezarri ditugun helburuei erantzutea izango da, hau da, herritarrak eta bere ongizatea erdigunean jarriko ditugu.

Honek, baliabide ekonomikoak berregituratzea eskatuko digu: diru- sarrerak aldatuko dira, eta egoera berrian erronka berriei erantzuteko gastu eta inbertsioak berregin beharko dira. Aurrekontuen birformulaziorako, sarrerak eta gastuak berriz kalkulatu behar dira.

Diru sarrerak.

- Aldundiaren zenbait diru sarrera nabarmen txikiagoak izango dira.
- Eusko Jaurlaritzak zenbait partida handituko ditu (AES).
- Murriztuko diren beste sarrerak aintzat hartu.
- 2019ko likidazioa.

Gastuak aztertzerakoan, erabakiak hartu beharko dira. Tolosako EH Bilduren proposamena:

- Ezinbesteko gastuak zehaztea (soldatak, hornikuntzak...).
- Atzeratu daitezkeen gastuak adostu eta hauen artean lehentasunak finkatu: Pertsonak atzean ez dituzten inbertsio eta proiektuak atzeratu.

Egoeraren diagnosis, beharrak aztertu eta aurrekontuen berrazterketa egin ondoren, gai izango gara laguntzak zentzuz bideratzen hasteko. Beti ere, helburu nagusiak hauek direla kontuan hartuta:

- Egoera zaurgarrienean gelditu diren herritarrei oinarritzko laguntzak bermatzea.
- Tokiko ekonomiaren sektore ezberdinei babesa eta laguntza ematea. Laguntza hauek, gainontzeko administrazioetatik etor daitezkeen laguntzen osagarri izango dira, laguntzak bikoiztu gabe.

Esku hartze plana

Antzeman ditugun beharrezanean erantzuteko erronkak zehaztu eta ekimen bihurtu. Lan hau ere herritarrekin eta eragileekin partekatzea funtsezkoa iruditzen zaigu, era honetan, herria eta komunitatea indartuko ditugu, eta ekintza planarekiko atxikimendu handiagoa lortuko dugu.

Epe labur zain ertaineko lan ildo nagusi batzuk aurreikusten ditugu tolosarron bizi kalitatea ahal den gutxien kaltetu dadin.

BABES-SOZIALA

1. Udaleko gizarte zerbitzuak eta bere aurrekontua indartu

- Larrialdirako diru laguntzen partida zabalgarria bilakatu.
 - Larrialdian sortutako eta deskonfinamenduan emango diren zaintza beharrei erantzuna emateko zaintza zerbitzuak hedatu (nagusien zaintza, haurren zaintza, zaintza kolektiborako sare/zerbitzuak,...)
 - Zaurgarritasun, babesgabetasun, isolamendu-arrisku edo zaintza beharren detekziorako programak martxan jarri.
 - Etxez etxeko zerbitzuetarako urgentziazko prozedurak prestatu.
 - Salbuespen egoeran eman daitezkeen indarkeria matxista kasuen aurrean salbuespeneko protokoloak ezarri.
 - Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan (GLL-AES) alokairua edo hipoteka mailegua ordaintzeko gehieneko zenbatekoak igo eta hauek jasotzeko hainbat baldintza malgutu edo/eta ezabatu, hauek jasotzeko aukerak zabaldu eta tramiteak errazteko helburuz. Hau posible ez balitz horretarako laguntza lerro berri bat irekitzeko aukera aztertu.

2. Larrialdietarako elikadura-laguntza indartu

- Bonu sozialak sortu, baliabide urriko pertsonen edo familiek herriko dendetan elikagaiak eta garbitasunerako produktuak eros ditzaten. Ekimen hau elikagai bankuko ekimenaren osagarria litzateke.
- Elikagai bankuen lana eta familia zaurgarrienen elikadura segurtasuna bermatu tokiko ekoizleei kontsumituz. ZUTANI elkartearen hitzarmena berrikusi behar berrietara egokituz.
- Etxerako Otorduen Zerbitzua indartu, bertako ekoizleekin lankidetzan.

3. Oinarrizko gastuei (elikadurari, alokairu edo hipotekaren ordainketari edo oinarrizko beste gastu batzuei) aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko dei publikoa egitearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Pertsona horiei, dauden laguntzen berri eman eta horiek eskuratzeko aholkularitza emateko baliabideak jarri behar dira.

TOKIKO EKONOMIA

1. Aholkularitza zerbitzua abian jarri, erakunde ezberdinetatik jaso daitezkeen laguntzen berri emateko eta eskaerak egiten laguntzeko (Tolosaldea Garatzen).

2. Tolosako merkataritzan kontsumitzeko kanpaina egin.

3. Tolosako saltoki eta zerbitzuak suspertzeko erosketa bonoak martxan jarri.

4. Diru-laguntza zuzena kalteberatasun ekonomikoa (%40ko galera gutxienez) jasan duten eta helbide fiskala Tolosan duten 10 langile baino gutxiagoko enpresentzat. Laguntza hauek emateko kasu bakoitzaren egoera ekonomikoa aztertuko da eta egoera zaurgarrienean daudenak lehenetsiko dira.

5. Mikrokredituak autonomo eta enpresa txikientzat. Banka etikako erakunde batekin hitzarmena egin oinarrizko gastuei aurre egiteko interesik gabeko maileguak emateko. Interesak udalak bere kargu hartuko lituzke.
6. Elikadura burujabetza sustatu, lehen sektoreko ekoizleen produktuen salmenta babestu eta areagotzeko neurriak hartu. Adibidez, azokaren berregituratze plana behar berrietara egokituz joan astez aste (egituraketa eta maiztasuna). Etxez etxeko zerbitzua ekoizle gehiagora zabaltzeko neurriak hartu.
7. Jarduera ekonomikorik gabe egon diren bitartean eragile ekonomikoak kobratu zaizkien Tasak bueltatzeko edo hobaritzeko formulak bilatu.
8. Larrialdi egoeratik (eratorritako alokairu ordainketa arazoak direla eta) sortu daitezkeen komertzio itxierak ekidin, eginda dagoen lokal hutsen azterketa baliatuz programa berriak martxan jarri (edo daudenak indartu edo moldatuz). [Epe ertaineko neurriak, baina aurrekontua egokitzeko garaian, lehentasunetan kontutan izatekoa].

FEMINISMOA

1. Indarkeria matxistari aurre egiteko neurriak:

- Espediente judizial aktiboak edo tratu txarren susmoa dagoen kasuak identifikatu eta premiazko mekanismoak ezarri.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta, arrisku egoerak eta susmo-kasuetan jarraipen-deiak edo ahal denetan aurrez aurreko bisitak egin.

2. Zaintza duten eta etxetik kanpo lan egin behar duten ama askok seme-alabak erasotzailearekin utzi behar ez izateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez, diru laguntzak bideratu zaintzaile bat kontratatuz (zaintza zerbitzuen hedapena, babes soziala atalaren barruan izan liteke).

3. Laguntza psikologiko eta juridikoaren zerbitzua indartzea (Gizarte zerbitzuen bidez).

4. Sexu langileak eta kontraturik gabeko etxeko langileei Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez aholkularitza eta emergentziazko laguntzei sarbidea eman.

KULTURA/AISIA/KIROLA

1. Udalak kontratatutako kultur ikuskizunak bertan behera ez uztea. Kultur sortzaileei bi aukera proposatu:

- Ikuskizuna atzeratzea eta kultur-sortzaileari emanaldia egiteagatik kobratuko lukeenaren %30a aurreratzea.
- Jadanik hitzartuta zeuden kultur ikuskizunak, ahal den neurrian, mantendu formula alternatiboak eta teknologia berriak erabiliz (streaming-ak etab.).

2. Herriko kultur eragile eta sortzaileekin kontaktuan jarri, bere egoeraren berri izateko. Bere jarduera berreskuratzeko aukerak aztertu beraiekin. San Juanetan hauetako batzuen partehartzea nolakoa izan daitekeen aztertu.

3. Berdina egin kirol eragileekin.

4. Baratza komunitarioen tasak erabili ez diren epeetan hobaritu.

ETXEBIZITZA

1. Zuzkidura bizitokietako maizterrei, hurrengo hilabeteetan amaituko zaizkien bost urtera arteko luzaezinezko kontratuak dituzten kasuetan eta zaurgarritasun egoeran dauden guztiei, salbuespenez, urtebetez luzatzea kontratua.

2. Apirilaren 17ko ezohiko Osoko Bilkuran parke publikoko maizterrei onartu genituen errenten ordainketa salbuespena, aurretik egoera larrian zirenei ere zabaltzea, Urtarrilaren 1etik langabezia daudenei (lana aurkitu bitartean).

3. OHZ (higiezin zerga) kobratzeari dagokionez, diru-laguntzetara bideratutako aurrekontu-partida bat onartu, betiere errentaren arabera, baldintza nagusi gisa, zerga hori ordaintzeko. [Diru laguntza edo hobariz egitea aztertu behar](#)

4. Tolosako Etxebizitza hutsen plana, sortuko diren behar berriei egokituta egitea. Alokairu sozialerako programen bidez merkaturatzea. [Epe ertaineko neurria, baina aurrekontua egokitzeko garaian, lehentasunetan kontutan izatekoa].

HEZKUNTZA

- Momentu honetan itxita dauden udaleko zerbitzu publikoetako (haurtxoko, gazteleku...) hezitzaileak, edo bestelako laguntza eman dezaketen langile publiko eta haien lana etena dagoena, laguntza behar duten ikasleei eta familiei bideratzea.

MIGRAZIOA

1. Pertsona migranteei, eskubide guztien bermea eskaintzea: osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, lan-zerbitzuak, etxebizitza, etab. betiere udal eskumenen barne.
2. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik edo toki-administrazioiko beste esparru batzuetatik erroldatzeak planteatu, pertsona guztiek aukera izan dezaten erkidego eta udal mailan planteatzen diren neurri guztiei erantzuteko. Larrialdietan, ezinbesteko baldintza ez izatea.

ZERBITZUEN KONTRATAZIO PUBLIKOA

1. Azpikontratutako zerbitzuak BERRIKUSI:
 - Langileen lan baldintzen jarraipen zorrotza egin, eta kontratuetan baldintza zorrotzak ezarri prekarietateari buelta emateko.
 - Azpikontratetan Udalek ere badituztenez beren ikuskaritza propioak, horiek aktibatzea, gutxienik, udal zerbitzu horietan osasun eta segurtasun baldintzak ematen direla bermatzeko.
2. Kontratazio Publikoan klausula sozialak txertatu.
3. COVID19aren ondorioz birmoldatu behar izan diren edo sortu diren behar berriak kontuan izan: garbiketa, etxez etxeko zerbitzua, zaintza komunitarioa, ludotekak, kiroldegiak,...
4. Etxez etxeko zerbitzuaren kontratazioa udaleratzeko aukera aztertu. [epe ertaineko neurria, baina aurrekontua egokitzeko garaian, lehentasunetan kontutan izatekoa]

ehbildu
Tolosa

 tolosa@ehbildu.eus  [@EHBilduTolosa](https://twitter.com/EHBilduTolosa)  [EH Bildu Tolosa](https://www.facebook.com/EHBilduTolosa)